

2011-09-27ko UDALBATZA ARRUNTA

Iruran, bi mila eta hamaikagarren urteko irailaren hogeita zazpian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar arrunta egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-BILDU udal taldekoak: Gorka Murua Macuso, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Josu Yurrita Loitegui eta Ainara Mugica Iruretagoyena.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: Tomas Etxeberria eta Javier Izaguirre Gomez.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri eman dio udalbatzari:

78 zenbakitik 134 zenbakira bitartekoak+-.

BIGARREN GAIA

2010 EKITALDIKO UDALEKO KONTU OROKORRA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Dokumentazioa gazteleraz bakarrik dagoela ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du aztertu gabe uztea.

HIRUGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO JAIETAKO EGITARAUA ETA AURREKONTUA.-

2011ko San Migel jaien egitaraua eta aurrekontua aurkeztu da. Aurrekontua 58.251 €-koa da.

Hori ikusita, eta batzorde informatiboaren txostena ez dagoela kontuan izanik, aho batez eta gehiengoaren aldeko botoekin onartu da gaiari presazko izaera ematea, gaia eztabaidatu dadin.

Eta, ondoren, aho batez onartu dira egitaraua eta aurrekontua.

Akordioa behin betikoa da administrazio bidean.

LAUGARREN GAIA

2011 EKITALDIKO EUSKAL FONDOAREN DIRU-LAGUNTZA ERABAKITZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalak, Euskal Fondoko kide denez, 2011 ekitaldirako ekarpena onartu nahi du.

Hori ikusita, eta batzorde informatiboaren txostena ez dagoela kontuan izanik, aho batez eta gehiengoaren aldeko botoekin onartu da gaiari presazko izaera ematea, gaia eztabaidatu dadin.

Eta ondoren, aho batez onartu da 2.400 €-ko ekarpena egitea 220K egitasmorako: "Saharar errefuxiatuen kanpamenduen eremuan garraio-azpiegitura bultzatzea. Ibilgailu astunen tailerra. II fasea".

Akordioa behin betikoa da administrazio bidean.

BOSGARREN GAIA

APATTAERREKAKO INDUSTRIAGUNEA S.L.-RAKO IRURA UDALEKO ORDEZKARITZA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.-

2011ko iraileko 117/11 alkate-dekretuaren berri eman da:

"Udal hau hainbat erakundeetako partaide da eta erakunde horietako ordezkariak izendatu behar ditu.

Premiazko arazoa izanda, hau:

ERABAKITZEN DU:

Lehenengoa.- Apattaerrekako Industriegunea S.L.-rako Irura Udaleko ordezkari hauek izendatzea:

-Ainhoa Ugalde Gorostiaga (Titularra).

-Ainara Múgica Iruretagoyena (Ordezkoa).

Bigarrena.- Hurrengo udalbatzan erabaki honen berri eman eta guztiak jakinaren gainean jartzea.

Akordio hau behin betikoa da bide administratiboan. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Donostiako administrazioarekiko auzietarako epaitegian.”

Eta Udalbatzak aho batez berrestea erabaki du.

Akordia behin betikoa da administrazio bidean.

SEIGARREN GAIA

DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.-

Alkatearen dekretu bat aurkeztu da berresteko.

Dokumentazioa gazteleraz bakarrik dagoela ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du aztertu gabe uztea.

ZAZPIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.

Ez dago galde erregurik.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari gisa dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA